



2020ko ABENDUAREN 15ean EGINDAKO ELANKIDETZA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAKO KONTSEILU ERREKTOREAREN BILKURAREN AKTA.

Plataforma telematikoaren bidez eta 2020ko abenduaren 15eko 12:30ean, erakundearen Kontseilu Errektorearen bilkura telematikoa hasi da, eta honako pertsona hauek bertaratu dira:

- Kontseiluburua: Beatriz Artolazabal andrea, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua / GLEAko presidentea
- Bokala: Iker Atxa jauna, Lehendakaritzako aholkularia, Jonan Fernandez ordez (bertaratze telematikoa)
- Bokala: Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Osasun sailburuaren Kabineteko zuzendaria. (bertaratze telematikoa)
- Bokala: Fernando Iturriaga Ancin jauna, Programa eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Saila, Hernando Lacalleren ordez. (bertaratze telematikoa)
- Bokala: Jone Miren Fernández andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria, Bittor Orozen ordez. (bertaratze telematikoa).
- Bokala: Sofía Marroquín Guerrero andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkaria. (bertaratze telematikoa)
- Bokala: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkaria. (bertaratze telematikoa)
- Bokala: Patricia Bárcena García andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkaria. (bertaratze telematikoa)
- Bokala: Leixuri Arrizabalaga andrea, Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko burua. (bertaratze telematikoa)
- Bokala: Oihana Etxebarrieta andrea, Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko bokala. (bertaratze telematikoa)
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

Era berean, guk gonbidatuta eta gai-zerrendan bildutako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa emateko xedez, Noemí de la Fuente Pereda andrea –eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Estrategikoaren arduraduna– bertaratu da.

Sarrera

Beatriz Artolazabal sailburuak 12:35ean eman dio bilkurari hasiera,

honako gai-zerrendarekin:

1. *2020ko azaroaren 17an egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.*
2. *PRE ekintza humanitarioko proiektuei laguntzak emateari buruzko informazioa.*
3. *Hala badagokio, 2019ko memoria onartzea*
4. *Galde-eskeak*

1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2020ko azaroaren 17ko bilkuraren akta onartu da, bertaratutako guztien aldeko botoarekin.

2. PRE ekintza humanitarioko proiektuei laguntzak emateari buruzko informazioa

Araudiari jarraikiz, Kontseilu Errektorean aztertu behar dira laguntza hauek; ez dute Kontseiluaren onarpenik behar. Gai-zerrendako puntu honi buruzko dokumentazioa igorri da aldeaz aurretik.

Oxfam Intermón Fundazioak Kolonbian inplementatuko duen ekintza humanitarioko proiektu baten onarpena jakinarazi da. Muga gurutzatu duten emakume migratzaile venezuelarren eta Araucako departamenduko lau udalerritako harrera-komunitateen eskubideak babestea du helburutzat proiektuak.

Uztailaren 17ko bilkuran, Kontseilu Errektoreari jakinarazi zitzaion Gosearen aurkako Ekintzak Venezuelan inplementatu beharreko proiektu baten onarpena eta linea iraunkorreko funtsen bukaera. Haatik, erakundearen uko egite eskaera bat jaso zuen eLankidetzak urriaren 19an, proiektua abiarazteko zailtasunak alegatuz herrialdearen egoera dela eta. Uko egite horren ondorioz, 121.415,45 euroko gerakina genuen berriz ere erabilgarri.

Hurrengo sei eskaerak iritsiera-ordena zorrotzari jarraikiz aztertu direla ere jakinarazi da. Eskaera horien artetik, bat ez zen onartu 50 puntura iristen ez zelako, eta hiru ez zirelako ondo uztartzen Gida Planaren eta Ekintza Humanitarioko Estrategiaren lehentasunetan.

Laburpen gisa adierazi duenez, 2020an 31 eskaera aurkeztu dira 20 herrialde baino gehiagotan ekintza humanitarioko proiektuen linea iraunkorra baliatzeko. 22 proiektu onartu dira, 4.200.000,00 euroko zenbatekoaz eta 56,50 puntuko batez besteko notarekin:

- 12 proiektu Afrikan, 2.290.353,96 euroko zenbatekoaz (% 54,53), honako herrialde hauetan: KER, SEAD, Etiopia, Tanzania, Nigeria, Hego Sudan,

Mali, Uganda, Niger. Horrenbestez, deialdian aurreikusitako % 50 gainditu da.

- 10 proiektu Ameriketan eta Asian, 1.909.646,04 euroko zenbatekoaz (% 45,47), honako herrialde hauetan: Mexiko, Guatemala, Kolonbia, Venezuela, Palestina, Libano eta Siria.

Sei proiektu baztertu dira: hiru ez direlako 50 puntura iritsi eta beste hiru Garapenerako Lankidetzaren Gida Planean eta Ekintza Humanitarioko Estrategian ezarritako premisak ez betetzeagatik, 90/2019 Dekretuaren 16.1 artikuluan jasota dagoenez (Salvador, Mauritania eta Nikaragua). Eta bi ekimen geratu dira balioetsi gabe; ezezkoa eman zaie, funtsak bukatu egin direlako.

COVID-19aren pandemiari emandako erantzunari dagokionez, proiektu gehienek pandemiari aurre egiteko jarduerak (kiten banaketa, prestakuntzak eta higiena hobetzeko sentsibilizazioa) edo pandemiari egokitzeko jarduerak (parte-hartzaileen kopurua murriztea saio presentzialetan, telefonoa erabiltzea jarraipena egiteko edo elkarretaratze birtualak) biltzen dituztela jakinarazi da.

Galderarik edo iruzkinik ez dagoenez, gai-zerrendako hurrengo puntuarekin jarraitu dugu.

3. Hala badagokio, 2019ko memoria onartzea

Gogorarazi denez, eta araudiari jarraikiz, Kontseilu Errektorearen funtzioen artean dago eLankidetzaren Jardueren Urteko Memoria onartzea. Aldez aurretik helarazi da 2019ko Memoriaren edukia.

Gogorarazi denez, 2018az geroztik ari gara memoria bisualago baten diseinua lantzen, eta edukiak ere asmo horrekin egokitu dira, mapa eta grafiko bisualagoak erantsiz.

Bi kapitulutan zatitzen da memoria: kapitulu batek egindako jarduera nagusien berri ematen du lehenik. Aurrekontu-egikaritzapena eta emandako funtsak aztertzen ditu bigarrenak. Iaz bezala, Excel artxiboa du lagungarri 2019. urtean emandako ekimen guztien zerrenda osoarekin, pertsona interesdunek egoki irizitako azterketak egin ditzaten.

Ez dago ez komentariarik, ez ekarpenik. Bozketa egin da eta aho batez onartu dute bertaratuek.

4.- Galde-eskeak

Ez dago galde-eskerik.

Beste gairik proposatu ez denez, bilkura amaitutzat eman da 12:55ean. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehen paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE. Beatriz Artolazabal andrea,
eLankidetzako eta erakundearen
Kontseilu Errektoreko presidentea,
EAEko lehendakariak eskuordetuta
(11/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa).

Paul Ortega Etcheverry
Kontseilu Errektoreko idazkaria
eLankidetzako zuzendaria